

Euskarazko IKTen inbentarioa osatu du Eusko Jaurlaritzak

EUSKO JAURLARITZAREN asmoa euskaraz dauden baliabide eta tresnak zeintzuk diren herritarrei jakinaraztea eta haien erabilera erraztea da, horregatik osatu du Euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrien Inbentarioa. Inbentarioak proiektuei buruzko informazio sailkatua eskainiko du eta horrez gain, informazio hori etengabe osatu, zuzendu eta eguneratzeko tresna izango da. Aurten informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko proiektuak finantzatzeko diru-laguntzetan 1.350.000 euro banatuko ditu Jaurlaritzak –iaz baino %35 gehiago–.

Xalbador eskolan gela itxi beharrean

SEASKAKO Xalbador ikastetxean ez dute izango behar duten lanpostua datorren ikasturtean eta ondorioz, gela bat itxi beharko dute. Bosgarren mailako 59 ikasleak bi gelatan banatu beharko dituzte. Kanboko ikastetxe horretako irakasle eta gurasoek elkarretaratzea egin berri dute Frantziako Hezkuntza Ministerioaren erabaki hori salatzeke. Horrez gain, kolegioko irakasleek Euskararen Erakunde Publikoaren eta Ministerioaren arteko kontraesana salatu dute, Max Brisson Euskararen Erakunde Publikoko zuzendariak murgiltze ereduari behar espezifikoak aitortzen dizkio, eta aldiz, Minis-

terioak, gela bat ixtera behartzen ditu.

John Carrol EHU

EHUKO IXA taldeak gonbidatu du John Carrol, Sussex Unibertsitateko irakaslea. Uztailaren 9tik 11ra egongo da. Hizkuntzaren analisi automatikoan da aditua britainiarra eta ezagutza linguistikoa eta analisi estatistikoa aldi berean aztertzen dituzten tresnak sortu ditu arrakastaz. Bestalde, IXA taldeak berak “Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua” izeneko doktorego programa antolatu du datorren ikasturterako; filologo eta hizkuntzalariarentzat, Informatikako eta Telekomunikazioetako ingeniariarentzat, eta interesa duen ororentzat.

BAHEA

Mertxe Mujika, AEK-ko koordinatzaile nagusiak, UKn esanak: “Aspaldi honetan, egunkaria hartu eta gero eta gehiagotan irakurtzen dut lan eskaintzetan, *se valorará enskerru*. Bilbo Handian dauden enpresez ari naiz, ez Gipuzkoako bihotzean daudenez bakarrik. Hori, orain dela urte batzuk, pentsaezina zen. Seinale bat da. Beraz, (euskara) beharrezkoa? Beharrezkotzen hasita dago”.
Joxe Aranzabalek, Faraa bere blogean esanak: “Gaur egun, (...) 4.500 blog inguru ditugu euskaraz. Jakina, blog horiek guztiak ez daude bizirik. Euskarazko blog horiei aplikatzen badiegu David Sifryk Technorattin erabiltzen duen neurria, blog horien %55 bakarrik leudeke bizirik, alegia, azken hiru hilabeteotan behin gutxienez zerbait argitaratu dutenak. Orduan esan beharko genuke euskarazko blogak 2.475 direla, zelan edo halan bizirik daudenak. Polifonia ederra, euskarak aurretik inoiz bizi gabea?”.

Heriotza bortitz guztiak ez dira berdinak

Ez da gauza bera lanean hiltzea, lantokian, obra batean ala borondatez eta gainera hobeto ordainduta helburu militarrek betetzera joanda bizia galtzea. Bizitzak prezio bat baino gehiago du. Hedabideek, azaletik hasita, biolentzia gaitzetsi edo nabarmendu egiten dute jatorriaren arabera. Erakundeek biolentzia egoeraren arabera modu batera edo bestera tratatzen (kalteak ordaintzen dituzte) dute. Euskal Herriko zein Espainiako iritzi publikoak, joan den astean, beste behin, egiaztatu ahal izan du errealitate izugarri hori. Libanon Espainiako sei militar gaztek (hiru etorkin) bizia galdu dute atentatuan, eta Euskal Herriaren berriz, urte honetan 62 langile (batzuk etorkinak) hil dira lan istripuetan. Libanokoa gertatu den garaian Bedian (Bizkaia) eta Donostian langile bana hil da eta Burgun (Araba) bederatzi langile zauritu dira. Sei militar gazte boluntarioentzako izan ziren prentsako lehenengo orrialdeak eta telebistako lehenengo albisteak, harrera ofizialak eta dolu egun ofizialak antolatu ziren eta 140.000 euro arteko kalte-ordainak iragarri dituzte. Hildako langileentzat eta larri zauritu direnentzat ez dago egunkariko azalik, ez harrerarik ezta senideentzako harrekarik ere. Ez dago dolu egunik. Ez dago kalte-ordain ofizialik. Erakundeek biolentzia hori zein heriotzen –aurten ehundik gora izango dira– eta ezintasun iraunkorren arduradunak ez dituzte eraginkortasunez jazaritzen.

Juan Mari Arregi



NaBai, malgutasunaren arriskuak

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



Ibarretxe lehendakaria hitzaldia ematen Bilbon, auzi bera medio, EAEko Auzitegi Gorenaren egoitzatik atera ondoren.

NAFARROAKO herritar aber-tzale askoren artean, NaBaik PSNrekiko negoziatioetan asko eman duela uste da, gehiegi agian. Iruñeko Udalean eta Nafarroako Legebiltzarreko Mahaiaren lehendakartzan gertatutakoak dira irudipen horren gertakizunik esanguratsuenak; baina oro har, negoziaketa osoan PSNk etengabe igorri dio iritzi publikoari egoera menpean eta kontrolpean duela. Eta aldi berean, bere ahalegin itzelean, PSNrekiko menpekoegi ere agertu da NaBai gizartearen aurrean.

Kontua da halako jarrerak ohikoak direla negoziaketa askotan, eta neurtu beharrekoa bukaerako lorpena dela. Eta zer litzateke lorpena Nafarroako egungo egoeran? Muturreko aldaketarik ez dela izango argi dago. Modu orokorrean esanda, hamasei urteko agintaldiaren ondoren UPN boterearen lehen lerrotik kanporatzea, Gobernua galduta ere asko baitira oraindik Nafarroan dituzten botere guñeak, besteak beste mediatikoa. Apur bat gehiago zehaztuz, lorpenak hiru esparru zabaletan bederen izan beharko lukete emaitza argirik. Bat, eremu sozialean aurrekontuak eremu publikoetara nabarmen berbideratzea, bereziki osasuna, hezkuntza eta ongizateratzea. Bi, euskara eta euskal kulturaren eremuan, batez ere 1999tik gaurdaino UPNk –PSNren laguntza bikainarekin– inposatutako eraso geldiarazi, eta herritarren nahiei lotutako hizkuntza politika bideratzea. Hiru, sinboloen eremuan, herritarrek edo erakundeek eurek egokien ordezkatuta sentitzen diren sinboloekin ateratzeak jazarpenik ez izatea.

San Ferminen ostean Legebiltzarrak zirt edo zart egin behar du, edo

gobernu berria hautatu edo hauteskundeak errepikatu. Bigarren aukera urruti badago ere, dena da posible. Oraingoz bederen Zapaterok Nafarroako Gobernua dela eta Raxoiren presioa baretzea lortu du Kongresuko eztabaida orokorrean. ETAren atentaturen batek ere zaildu egingo luke akordioa, zalantzarik gabe, eta zeresanik ez berau Nafarroan balitz.

IBARRETXE LEHENDAKARIAK eta PSE-EEko buruzagiek Batasuneko kideekin izandako harreman publikoetan delitu zantzurik ikustea, Alderdien Legeak sortutako egoera politikoko maltzuraren isla besterik ez da. Kate beretik Jose Luis Rodriguez Zapaterok ere bere burua estu ikusi beharko luke, bai Batasunarekin bai ETArekin izandako elkarriketa eta negoziatio saioak medio. Espainiako Kongresuak baimendutako posizioa izanik, Espainiako Kongresuak berak bultzatutako Alderdien Legea baliatzen ari dira zenbait epaile jarduera politikoa kontraesanak sortzeko. Eskubide politikoen ikuspegitik, Alderdi Legea baliatuz Batasunari lehenago zabaldu dizkioten beste auzi batzuk bezain zentzugabea eta salagarria da honako hau; une politikoa ikuspegitik, judikaturan badi-

ra egoera hau baliatu eta Ibarretxe lehendakaria epaitegietara eraman nahi duten epaileak. Irudi kontua besterik ez da, irudi horretan botere batek beste bat nola menperatzen duen argi irudikatzen baita, gaur gaurkoz bederen ez baita aurreikusten bukaeran zigorrik izatea.

HIRUKOAREN AGORPEN

kontuen erdian harrapatu dute Ibarretxe ahozko epaiketarekin. Hirukoari buruzko bere posizioa argi utzi du, eta laugarren agintaldirako bere hautagaitzari buruzko zantzu batzuk argitara eman ere bai. Baina aurretik, bi gai zehaztu beharko ditu bederen: bat, bake prozesuaren azken negoziatio saioak porrot egin ondoren, Ibarretxe planarekin zer gertatuko den; eta bi, plan horretan aurreikusitako herri kontsulta legealdi honetan burutuko den ala ez. Bi urte geratzen zaizkio.

HAUTESKUNDEEN biharamunean, maiatzaren 27an, denak etorri ziren bat bi ondoriotan: lehena ohikoa da, norberak irabazi egin duela alegia; bigarrena, mapa politiko askoz korapilatsuagoa osatzen dela. Eta askoz korapilatsuagoa horrek esan nahi du, gobernu osatze lanak eta ondorengo jardun politikoa ere biziki zailduko direla. Baina badirudi alderdiei, batez ere nagusienei, hori onartzea kosta egiten zaiela.

Oso plurala den herri batean, dena ezin da homogeen izan: Jaurlaritza, diputazioak, udaletxeak.. eta hemen nahiko homogeen izan da urte askotan. Gehiegi ere bai. Ondo etorriak aldaketak, beti ere herritarren borondatearen erreflexu badira.